

NAIA DEL CASTILLO

2015.10.22 - 2016.01.17

HURRENGO ERAKUSKETAK

JESÚS LIZASO 2016ko urtarrilaren 28tik aurrera

rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.eus

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita

Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domingos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



rekalde



NAIA DEL CASTILLO

2015eko urriaren 22tik 2016ko urtarrilaren 17ra

- Rekalde Aretoak Naia del Castilloren (Bilbo, 1975) erakusketa aurkezten du: berrogeitik gorako eskulturek eta argazkiek osatzen dute artistaren lanaren berrikuspena. 2000ean abiatutako aukeraketa bat bada ere, azken bost urteotako produkzio artistikoa nabarmendu da; areago, lan batzuk ez dira orain arte inoiz erakutsi jendearen aurrean.
- Sei ataletan dago zatituta erakusketa. Ibilbide bat proposatzen du bere planteamendu artistikoan zehar, ez kronologikoa; hurbilekotik abiatu du beti bere planteamendu artistikoa, hutsalak zer duen berdingabea, eguneroak zer duen perbertsoa ikusiz.
- Subjektu aktiboaren eta objektu pasiboaren arteko anbiguotasunari zuzentzen zaie Naia del Castilloren obrak, eta iradokitzen dute objektuek zehazten dituztela giza ekintzak, giza baldintzek objektuei eragin egiten dieten modu berean. Bere obran, hautsezina da formaren eta esanahiaren arteko batasuna; hiru osagairekin eraikitzen du batasun hori: ekintza, argazkia eta eskultura.
- Katalogoaren testuan Haizea Barcenillak dioenez, “Naia del Castilloren lanak erabilitako materialen eta tekniken izaera subjektiboa eta intimoa aldarrikatzen du.”

rekalde Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.eus

ERAKUSKETA

Diálogos II eta *Retratos III* eta *IV* dira erakusketa abiatzen duten hiru argazkiak. Argazki-platoan hartu zituen irudi horiek; ilea erakusten dute, gizonak eta emakumeak batzen eta inkomunikatzen dituen material bezala. Buruan ilea bueltaka dabil; argazkikoei aurpegia ukatzen die, eta ukimenezko ezaugarriak dituen bolumen zarratu bilakatzen ditu argazkian ageri direnak.

Bigarren atalean, argazki eta objektu/eskultura multzo bat dago; estetika ilunagoa eta barrokoagoa dute. Hiru serie desberdinetakoak dira: *Atrapados*, *Ofrendas* y *Posesiones*, eta *Doce Artistas en el Prado*. Emakumearen presentzia eta absentzia lantzen dute, harribitxi bihurtutako edo zuloez eta errape handiez esalitako gorputz bat ezkutatzen eta mozorrotzen. Lanaren egitura da gorputza, euskarri eta eragile moduan funtzionatzen duena. Obrak eramaten ditu, okupatzen ditu, erabiltzen ditu gorputzak.

Umorea eta keinuak beti agertzen dira Del Castelloren lanean. Esate baterako, *Sedución* lanean, jokoaren arauak iraultzeko erabiltzen du: ile zuriko alfonbra baten gainean, sedukzioaren antzeppen estereotipatua azaltzen du, kotoi-kutsuko giro arrosa baten barruan.

Sobre la seducción sailean, berriz, sedukzioaren joko zirkular eta zehaztuga-beaz dihardu artistak; zelan eraikitzen den sedukzioa errituen eta estrategien gainean. Sedukzioan, gorputzaren erabilera interesatzen zaio: gorputzak erreala izateari uzten dio, eta irudi, itxura edo artifizio bihurtzen da. *Seductor* eta *ST –Sedución* lanetan, ordea, jarrera eta generoen arteko kontraesana azaltzea lortzen du Del Castillo, eta ikusleari gonbit egiten dio dituen arketipoez galde diezaion bere buruari.



Flujos I, 2013 (xehetasuna)
Inpresio digitala, tinta pigmentatua Hahnemühle
Photo Rag Ultra Smooth paperaren gainean
100 x 76 cm

Gorputzak, objektuak eta bere irudiek informazio sozialak, politikoak eta generoak adierazten dituzte. *Atrapados* eta *Desplazamientos* lanetan, altzariak baldintzatu egiten dituzte, altzarien funtzio-naltasunetik edo apaingarri direlako abiatuta. Lehen lanean, altzarien eta gorputz emearen interdependentsia azaltzen du Del Castillo. Bigarrean, berriz, hiritarrak garen neurrian, naturarekin dugun harremana agertzen du, eta natura zelan aldatzen dugun, harik eta natura errepresentazio-elementu bilakatu, eta kulturaren eraikitako irudia izatera mugatzen dugun arte.



Espacio doméstico – Silla, 2000
Argazkia. 147 x 100 cm

Azken lanetan, “ekintza, argazkia eta eskultura” ordena alboratu du artistak, eta arreta jarri du erabili duen bitartekoan: argazkiaren papera edo oihala.

Flujos sailean, gorputza irudi bat da, besterik ez; horrekin ahotan hartzen du argazkigintzaren iraungitzea eta subjektuaren beraren iraungitzea; argazki-bitartekoaren mugak eta subjektu garaikidea identifikatzeko prozesuan irudiaren erabilera dira helburuak.

Nido de Abeja azken sailean, giza figura desagertu egiten da obratik. Oihal baten eskultura-gorputzaren izateari begira diezaiogun diosku Del Castillo. Eskulan egitekotsu batekin, oihal hori tolestu eta brodatu dute, eraiki, eutsi, tolestu, tenkatu, okertu, zabaldu-eta egin ahal izateko. Ehuntze-prozesuan eta diseinuan, ez dago alderik. Prozesuak sortzen du produktua.

ARTISTA

www.naiadelcastillo.com

Naia Del Castillo (Bilbo, 1975) Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretan dago lizentziatuta, eskultura-espezialitatean, eta master bat dauka Londreseko Chelsea College of Art & Design-en. Gaur egun, doktore-tesia egiten ari da Eskultura Departamentuan, Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultatean. Bilbo, Rotterdam, Londres, Bartzelona, Paris, Erroma, New York, Hong Kong eta Madril izan ditu bizileku eta lantoki, hainbat bekari esker, besteak beste: ISCP Internacional Studio and Curatorial Program, New Yorken (2009), eta Cité Internationale des Arts, Parisen (2004).

Banakako eta talde erakusketak egin ditu nazio barruan eta nazioartean, AEBetan, Latinoamerikan, Europan eta Asian. Azken erakusketen artean daude *Flujos* (BilbaoArte fundazioa, Bilbao, 2014), *Altered Perceptions* (Ilvetomorrow gallery, Hong Kong, 2011), *Time After Diamonds* (DeSantos Gallery, Houston, 2009), *El Reino del Silencio. Escultura española 2000-2010* (Esteban Vicente Arte Garaikideko Museoa, Segovia, 2009), *Nuevas Historias. A New View of Spanish Photography and Video Art*, (erakusketa ibiltaria, 2008, Kulturhuset Arte Garaikideko Museoa, Stockholm; National Museum Photography Den Sorte Diamant, Royal Library, Kopenhage; Kuntzi Museum, Finlandia, eta Sternesen Museum, Norvegia).